BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3953

EBAZPENA, 2013ko irailaren 6koa, Justiziako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru laguntzen deialdia ebazten duena.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak 2013ko ekainaren 5ean emandako Aginduaren bidez (2013ko ekainaren 17ko EHAA, 115. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko 2013an burutuko diren proiektuetarako diru-laguntzen deialdiaren oinarri arautzaileak ezarri ziren.

Bigarrena.– Eskaerak aztertu ondoren, eta deialdiaren Aginduaren 11. artikuluan aurreikusitakoa jarraituz, Balorazio Batzordea 2013. irailaren 3an bildu zen eta deialdiaren ebazpen-proposamena egin zuen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia zuzendaria da ebazpen hau emateko eskuduna, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duen Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2013ko ekainaren 5eko Aginduan.

Bigarrena.– Aipatu deialdiaren aginduak bere 8. artikuluan adierazten duenez, Justizia Zuzendaritzari dagokio, Helduentzako Justizia Zerbitzuaren bidez, aurkeztutako eskabide guztiak aztertzea eta horiek eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.

Hirugarrena.– Deialdiaren aginduaren 12. artikuluak xedatzen duenez, eskabideak honako balorazio-irizpide eta puntuazio-eskala hauen arabera baloratuko dira:

1.1.– Entitate eskatzaileari dagokionez:

Entitateak presoak gizarteratzearen eta lan-munduan txertatzearen arloan egin duen bidea. 0-10 puntu.

1.2.– Proposatutako proiektuari dagokionez:

a) Programaren onurak jasoko dituzten pertsonen kopurua, eta, gizartearen ikuspegitik, zenbateraino den egokia eta interesgarria. 0-10 puntu.

b) Presoak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko prozesuari egingo dion ekarpena; balorazio altuagoa emango zaie presoei espetxetik kanpo bizimodua ateratzeko aukera ematen dieten proiektuei. 0-20 puntu.

c) Proposatzen diren jardueretan entitate horrek presoekiko esku-hartze sozialean jarduten duten beste erakunde batzuekin eta Lanbiderekin erakutsi duen lankidetzaren eta baterako parte-hartzearen maila. 0-10 puntu.

d) Proiektua hainbat urtetan gauzatzeko aukera, proiektua finantzatzeko beste iturri batzuk izatea eta autofinantzaketa. 0-5 puntu.

e) Proiektuan edo programan boluntarioek parte hartzea. 0-5 puntu.

Artikuluak dio, halaber, ezen, balorazio-irizpideak aplikatuta, gehienez ere 60 puntu lortu ahal izango direla. Gainera, diru-laguntza emateko, aurreko irizpideen arabera 30 puntutik gora lortu beharko ditu eskabideak.

Laugarrena.– Bestalde, aginduaren 13. artikuluak, zenbatekoa zehazteari buruzkoak, bere lehenengoko artikuluan adierazten du Justizia Zuzendaritzak, Helduentzako Justizia Zerbitzuaren bidez, aukera izango duela, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztu baino lehen, diruz laguntzekoak ez diren gastuen edo proiektuarekin zuzenean lotuta ez dauden gastuen diru-kopuruak doitzeko.

Eskabideen zenbateko diru-laguntza zehazteko, artikuluak honako prozedura hau zehazten du:

– Eskabideak puntuaziorik altuenetik txikienera antolatuko dira. 60 puntu lortu dituen eskabideari (gehienez ere) portzentaje teoriko bat aplikatuko zaio, eskatutako kopuruaren % 100. Gainontzeko eskaerei balorazio irizpideetan lortutako puntuen araberako portzentaje proportzionala aplikatuko zaie, hurrenez hurren.

– Diru-laguntzen zenbateko teoriko guztiak batu eta aurrekontuen diru-hornidura gainditzen bada, diru-laguntzen zenbateko guztiak proportzionalki egokituko dira, diru-laguntza teoriko guztiei portzentaje berbera jaitsiko zaielarik. Portzentaje hori honela kalkulatuko da: diru-hornidura zati zenbateko teoriko guztia.

– Diru-laguntzen zenbateko teoriko guztiak batu eta aurrekontuen diru-hornidura ez bada gainditzen berriz, soberakoa eskabide guztien artean banatuko da proportzionalki, aurreko paragrafoan ezartzen den prozedura bera jarraituta. Horrela kalkulatutako zenbatekoak ezingo du inondik inora gainditu diruz lagun daitekeen gastuaren % 100.

Edozein modutan, proiektu bakoitzari eman ahal zaion gehienezko diru-laguntza 60.000 eurokoa izango da.

Bosgarrena.– Diru-laguntzaren ordainketa eta erakunde onuradunek egin beharreko justifikazioa, diru-laguntza jasotzeko beharrezkoak diren baldintzak bete dituztela eta diru-laguntzaren xede den proiektua burutu dutela egiaztatzekoa, deialdiaren aginduak xedatutakoarekin bat etorriko dira. Diru-laguntzak emateko baldintzak betetzen ez badira, aginduaren 19. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Horregatik guztiagatik eta Balorazio Batzordeak egin duen ebazpen-proposamena ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatzen diren erakundeei eta proiektuei bertan agertzen diren diru-laguntzak ematea.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatzen diren erakundeei eta proiektuei eskabideak ukatzea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, erakunde interesdunei jakinarazteko, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzen

deialdia egiten duen Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2013ko ekainaren 5eko Aginduaren 14. artikuluan.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa jar diezaioke Herri Administrazio eta Justizia Saileko Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 6a.

Justiziako zuzendaria,
MANUEL VALÍN LÓPEZ.

I. ERANSKINA

EMAN DIREN DIRU-LAGUNTZAK

ZK	IFK	Erakundea	Proiektua	Zenbatekoa (eurotan)
1	G48717045	Asociación Bide Sari de pastoral penitenciaria de Bilbao	Campo de trabajo de Zenarruza	582
2	G01174846	Asociación para la defensa de los presos Gizabidea	Salidas y Camino de Santiago	4.413
3	G01174846	Asociación para la defensa de los presos Gizabidea	Campos de trabajo	3.330
4	G48212468	Asociación módulo de asistencia psico-social Auzolan	Medidas alternativas para personas toxicómanas con penas de prisión	4.676
5	G20181319	Asociación para la reinserción social Erroak	Centro de orientación y acompañamiento para el empleo	20.223
6	G95265286	Asociación Amikeco para el tratamiento de la violencia	Programa de tratamiento de la violencia en condenas por violencia de género e intrafamiliar	9.049
7	G01027390	Asociación Gitana Gao Lacho Drom	Programa de inclusión sociolaboral para internos en C.P. de Araba	26.411
8	G48487748	Zabaltzen Durango	Centro de orientación y acompañamiento para el empleo Zabaltzen	12.639
9	G81436099	Fundación Adsis	Campo de trabajo de verano y Navidad en el CIAM San Prudencio	6.052
10	G20893830	Iresgi	Huerto ecológico de inclusión socio-laboral, terapeútico y solidario	4.569
11	G20893830	Iresgi	Salidas y Camino de Santiago para personas presas Martutene	2.361
12	G48169882	Fundación Etorkintza	Inclusión sociolaboral para personas presas drogodependientes	31.890
13	G48545610	Asociación Zubietxe para personas en situacion o riesgo de exclusión	Inclusión socio-laboral para personas privadas de libertad	8.371
14	G48229405	Módulo de Asistencia psico-social de Deusto-San Ignacio	Inclusión social de drogodependientes fuera de régimen penitenciario	6.417
15	G48473045	Fundacion Gizakia	Inclusión socio-laboral de personas drogodependientes presas	16.700
16	G01126127	Asociación de reinsercion social Sartu Alava	Centro de orientación y acompañamiento para el empleo de la asociación Sartu Alava	32.357
17	G48211080	Asociación de reinsercion social Gaztaroa de Bilbao	Centro de orientación y acompañamiento para el empleo Gaztaroa	20.223
18	G81436099	Fundacion Adsis	Centro de dia para personas privadas de libertad	10.042
19	G81436099	Fundacion Adsis	Proyecto de atención residencial de preparación a la vida en libertad	15.611
20	G81436099	Fundacion Adsis	Proyecto de integración sociolaboral (PISL)	10.199
21	G81436099	Fundacion Adsis	Salidas terapeúticas y culturales al Museo Bellas Artes Bilbao y la BOS	2.449
22	G48717045	Asociación Bide Sari de pastoral penitenciaria de Bilbao	Salidas programadas de fin de semana	2.422
23	G48717045	Asociación Bide Sari de pastoral penitenciaria de Bilbao	Proyecto Hedatu (piso de integración)	17.890

ZK	IFK	Erakundea	Proiektua	Zenbatekoa (eurotan)
24	G48717045	Asociación Bide Sari de pastoral penitenciaria de Bilbao	Proyecto Aldatzen y Berrituak (pisos de acogida y de reinserción para personas presas)	9.669
26	G01059146	Asociación de ayuda al preso-ADAP-	Habilidades sociales e inserción laboral 2013. Mujeres del C.P. Álava/Araba	4.689
27	G95005047	Asociación Susterra	"Xangar", Centro de Inserción y Capacitación para personas presas	7.946
28	G95561650	Asociación Centro de Psicoterapia humanista Erain	Programa de atención psicosocial y comunitaria a personas privadas de libertad	8.913
29	Q2866001G	Cruz Roja Bizkaia	Yo: agente de prevención y cuidado de mi salud y del entorno	2.473
30	G48578017	Asociación Goiztiri Elkartea	Programa de formación, capacitación y acompañamiento a la inclusión socio-laboral	12.891
31	G48578017	Asociación Goiztiri Elkartea	Recurso residencial Goizargi. Mujer y prisión.	16.959
32	G01237882	Asociación Salhaketa-Araba	Reinserción sociolaboral e integración social de presos en libertad condicional en el PLE.	4.079
35	G01042670	Comision ciudadana anti-sida de Alava	Piso de acogida e incorporación laboral	4.503
36	G01042670	Comision ciudadana anti-sida de Alava	Apoyo y acompañamiento jurídico a personas usuarias de recursos de Sidalava	1.645
37	G01042670	Comisión ciudadana anti-sida de alava	Módulos socioeducativos personas en régimen.abierto/libertad condicional	4.295
38	G95237491	Asociación Zubiko trebakuntza eta lan sustapena Elkartea	Acompañamiento para la inclusión sociolaboral de personas presas de la CAPV	25.201
39	G20093415	Fundación Izan	Proyecto de financiación del gasto por el alquiler del Centro de Inserción Social de Donostia	16.363
40	G01037431	Federación de Euskadi de Asociaciónes de familiares y enfermos presos FEDEAFES	Atención integral a personas con enfermedad mental afectadas por el régimen penal	7.554
41	G48852578	Sortarazi, Asociación Claretiana para el Desarrollo	Programa de incorporación sociolaboral para personas presas	3.944

II. ERANSKINA

UKATU DIREN ESKABIDEAK

Eranskin honetan zerrendatzen diren erakundeei diru-laguntzak ukatzen zaizkie, balorazio-irizpideetan eskabideek ez dutelako 30 puntu baino gehiago lortu. Puntuazio hori diru-laguntza emateko beharrezko baldintza da, hala zehaztuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duen Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2013ko ekainaren 5eko Aginduaren 12. artikuluan.

ZK	Erakundea	Proiektua
33	Asociación Hegaldi	Salidas prelaborales y sociales de mujeres reclusas del Centro Penitenciario de Martutene
34	AGIPAD	Grupos de alcohol para penados en segundo y tercer grado